



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko irailaren 6an

69 ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A :

Galderak:

- Galdera, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak egina, Napalen lurperatutako ardiei buruzkoa (3. or.).
- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, esnearen sektoreko ustiatzei buruzkoa (4. or.).
- Galdera, foru parlamentari Andrés Basterra Layana jaunak egina, Sarrigurengo merkataritza gunearen tramitearen egoerari buruzkoa (5. or.).
- Galdera, foru parlamentari Andrés Basterra Layana jaunak egina, Ripagaina garatzeko tramitearen egoerari buruzkoa (5. or.).
- Galdera, foru parlamentari Andrés Basterra Layana jaunak egina, Eguesibarreko udal industrialdearen proiektua aldatzeari buruzkoa (6. or.).
- Galdera, foru parlamentari Andrés Basterra Layana jaunak egina, Napalen hildako ardiei buruzkoa (6. or.).
- Galdera, foru parlamentari Andrés Basterra Layana jaunak egina, “Fruta eta Barazkien Merkatuaren Antolamendu Komuna” aldatzeari buruzkoa (7. or.).
- Galdera, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina, Cortesko ureztatzeko ubideetan izandako zenbait isurketa librerri buruzkoa (7. or.).
- Galdera, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina, Cortesko gazteluari buruz Nafarroako Gobernuak dauzkan asmoei buruzkoa (8. or.).
- Galdera, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina, Cortesko lursailak industria erabilerrako birkalifikatzeari eta bertan industriarako dagoen lurzoruari buruzkoa (9. or.).
- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, Nafarroako Oihan Planari buruzkoa (9. or.).
- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, toki entitateen egintzak eta erabakiak kontrolatzeko mekanismoei buruzkoa (10. or.).
- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, Mendillorriko kiroldegari buruzkoa (11. or.).

—Galdera, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak egina, tabakoaren Foru Planari eta Nafarroan dagoen tabakoaren kontsumoari buruzkoa (12. or.).

I SAILA:

Parlamentuko Jarduera:

- 2000ko ekainean egindako bilerak (14. or.).
- Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean 2000ko ekainean sartu diren dokumentuen zerrenda (18. or.).
- 2000ko uztailean egindako bilerak (30. or.).
- Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean 2000ko uztailean sartu diren dokumentuen zerrenda (30. or.).
- 2000ko abuztuan egindako bilerak (33. or.).
- Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean 2000ko abuztuan sartu diren dokumentuen zerrenda (33. or.).

F saila:
GALDERAK

Napalen lurperatutako ardiei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko abuztuaren 28an egindako bilkuran, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak Napalen lurperatutako ardiei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak ahozko erantzuna eskatu du, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordean emanen zaiona.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko abuztuaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Askotarikoa-Batzarre Parlamentuko Taldeko eledun Milagros Rubio Salvatierrak hainbat ekimen aurkeztu du Parlamentuan Napalen bi mila ardi hil eta lurperatu izanari buruz, horien artean presako informazio eskari bat, baina jaso duen erantzun bakarra Parlamentuko Lehendakariarena izan da, eskaria Gobernuari igorri diola jakinarazteko, eta eskatutako informazioaren zain egon bitartean, Diario de Navarrak 2000ko uztailaren 25eko edizioan eman zuen informazioa ezagutu ahal izan du. Bada, eskatutako informazioaren zain egon arren, eta egunkariko informazio horretako baieztapen batzuk ikusita, hauxe dio:

Biltzarreko Erregelamenduko 186 eta 189. artikuluetan xedatuaren babesean, eta zehatz-mehatz 189.1 artikuluan xedatua –“zera eskatu ahal izango da premia dela-eta, hots, aipatu epea gorde gabe (argitaratu eta bost eguneko) galderak sartu ahal izatea, baina betiere aurkeztu zirenetik gutxienez hiru egun igaro ondoren”– aintzat hartzeko eskatuz, ondoko galderei presako erantzun ahozkoa eman dakien eskatu du:

1.- Ardien gaixotasuna zehazteko modurik izan al duzue? zein da gaixotasuna?

2.- Zehazteko modurik izan ez baduzue, zer pauso eman dituzue, eta zein emanen, gaixotasuna zehaztearren?

3.- Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak aipatu egunkariari esandakoaren arabera, Zaragozan egin diren albaitaritza-analisiak ez dute “scrapie” gaixotasuna antzeman. Gaixotasun hori izan ez dutela bermatzen al du horrek?

4.- Ustez duten gaixotasun horrek “behi eroen gaitza” eragin dezakeenez, ikertu al da artalde horretako behiren bat edo horien ondorengoren bat saldu ote den gizakiek zein animaliek jateko?

5.- Zer erakunde edo leku ofizialki eman zaio, Espainiako Estatuan zein hortik kanpo, gaixotasunaren edo ardiek gaixotasuna izan dezaketen susmoaren berri? noiz?

6.- Transmisio genetikoko gaixotasuna izateaz gain, “scrapie” “animalia batek beste bati transmiti diezaioke hura eragiten duen birusaren bidez. Birus hori karen-ehunean egon ohi da, eta ardiek, euretako bat erditu denean, likido amniotikoa eta karena zurrupatu eta marraskatzeko ohitura dute”. Ardiak hiltzeko erabakiak Napaleko ardiei eta haien ondorengoei bakarrik eragin die, zergatik? ez al ziren beste inongo ardirekin ukipenean egon?

7.- Egin al du departamentu arduradunak hildako ardien simaurraren jarraipenik? zein?

8.- Ba al dago gizakion zein animalien osasunerako inongo arriskurik aipatu simaur hori Naparira eta beste herri batzuetara ura eramaten duen akuiferotik gertu barreiatu eta gero?

9.- Egin al da edateko uraren analisirik horren ondorioz? zein izan da emaitza?

10.- Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak aurreratu zuenez, “Departamentuak

bertatik bertara jarraituko du egoera aztertzen, harik eta arazoa erabat konponduta egon arte". Zer informazio eman dezake Departamentuak egoera bertatik bertara aztertzearen ondorioz?

Iruñean, 2000ko uztailaren 27an

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

Esnearen sektoreko ustiatzei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSE ANDRES BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko abuztuaren 28an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak esnearen sektoreko ustiatzei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko abuztuaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Esnearen sektoreak egoera zaila bizi du une honetan, ekoizleei esne-zentralek ordaintzen diz-

kieten prezioak jaitsi egin baitira. Esnetarako behi-aziendak dituzten abeltzainek ahalegin handia egin dute azken urteotan, eta inbertitu eta egiturak aldatzeko apustua egin dute, bai eta lehiatzeko moduko instalazioak lortu ere.

Gure herrialdea 1986an Europako Batasunean sartu zenez geroztik, esnea ekoizteari uzteko hainbat plan egin izan da, nahita egin ere. Administrazioak, berriz, abeltzainei banakako kuotak igotzeko esleipenak kudeatu ditu.

Horregatik guztiatik, hauxe jakin nahi da:

1.- Zer diru kopuru esleitu zaie 1986tik hona jarduera utzi duten ustiatzei?

2.- Zer diru kopuru esleitu zaie, 1986tik hona, oraindik ere lanean dihardutenei?

Iruñean, 2000ko ekainaren 29an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Sarrigurengo merkataritza gunearen tramitearen egoerari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI ANDRES BASTERRA LAYANA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko abuztuaren 28an egindako bilkuran, foru parlamentari Andrés Basterra Layana jaunak Sarrigurengo merkataritza gunearen tramitearen egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko abuztuaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Andrés Basterra Layana jaunak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren

bera Layana jaunak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1.- Zertan da Sarrigurengo merkataritza gunearen administrazio-tramitea? Zein da gune horri buruz Nafarroako Gobernuaren iritzia?

2.- Zertan da Intendentziako merkataritza gunearen administrazio-tramitea? Zein da gune horri buruz Nafarroako Gobernuaren iritzia?

3.- Zertan da Barañaingo merkataritza gunearen administrazio-tramitea? Zein da gune horri buruz Nafarroako Gobernuaren iritzia?

Iruñean, 2000ko ekainaren 29an

Foru parlamentaria: Andrés Basterra Layana

Ripagaina garatzeko tramitearen egoerari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI ANDRES BASTERRA LAYANA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko abuztuaren 28an egindako bilkuran, foru parlamentari Andrés Basterra Layana jaunak Ripagaina garatzeko tramitearen egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko abuztuaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Andrés Basterra Layana jaunak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren

babesean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1.- Zertan da Ripagainaren garapeneren administrazio-tramitea?

2.- Zertan da Sarrigurengo kirolaldearen administrazio-tramitea?

3.- Zertan da Sarriguren eta Gorraizen arteko eremu tertziarioaren administrazio-tramitea?

4.- Zer jasoko du Eguesek Ripagainaren garapeneren truke?

5.- Zer jasoko du Burlatak Sarrigurenen garapeneren truke?

Iruñean, 2000ko ekainaren 29an

Foru parlamentaria: Andrés Basterra Layana

Eguesibarreko udal industrialdearen proiektua aldatzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI ANDRES BASTERRA LAYANA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko abuztuaren 28an egindako bilkuran, foru parlamentari Andrés Basterra Layana jaunak Eguesibarreko udal industrialdearen proiektua aldatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko abuztuaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Andrés Basterra Layana jaunak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren

babesean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaieten:

1.- Ba al daki Nafarroako Gobernuak ea Eguesko Udalak asmorik duen Eguesko Udal Industrialdearen proiektua aldatzeko?

2.- Ba al daki Nafarroako Gobernuak ea Eguesko Udalak asmorik duen Eguesko Udal Industrialderako lurak desjabetzeko sistema aldatu eta konpentsaziokoa ezartzeko?

3.- Ba al daki Nafarroako Gobernuak ea VLV enpresak Eguesko Udal Industrialderako lurak salerosteko aukerarik duen?

4.- Ba al daki Nafarroako Gobernuak ea Eguesko Udal Industrialderako lurri buruzko txosten teknikorik dagoen?

Iruñean, 2000ko ekainaren 29an

Foru parlamentaria: Andrés Basterra Layana

Napalen hildako ardiei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI ANDRES BASTERRA LAYANA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko abuztuaren 28an egindako bilkuran, foru parlamentari Andrés Basterra Layana jaunak Napalen hildako ardiei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko abuztuaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeko Andrés Basterra Layana jaunak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondorengoek ezarritakoaren babesean, hona-

ko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak Napalen hildako ardienguz inguruan ezer esaten ez duenez, jakin nahi da:

1.- Abereak hiltzea eragin duen gaixotasun infekzioso zein den zehaztu al da?

2.- Eman al die Nafarroako Gobernuak, hartara behartua egonik, gaitz infekziosoaren agerpenaren berri Estatuko eta Europako erakundeei?

3.- Zer tramite jarraitu du Nafarroako Gobernuak gaitz infekziosoaren agerpenaren aurrean?

4.- Zer ekintza burutu ditu Nafarroako Gobernuak, erregelamenduetan zehaztutako prekauzio eta protokoloak jarraituz?

Iruñean, 2000ko uztailaren 21ean

Foru Parlamentaria: Andrés Basterra Layana

“Fruta eta Barazkien Merkatuaren Antolamendu Komuna” aldatzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI ANDRES BASTERRA LAYANA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko abuztuaren 28an egindako bilkuran, foru parlamentari Andrés Basterra Layana jaunak “Fruta eta Barazkien Merkatuaren Antolamendu Komuna” aldatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko abuztuaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Andrés Basterra Layana jaunak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Europako Batzordeak iragan uztailaren 12an onetsi zuen Fruta eta Barazkien Merkatuaren Antolamendu Komuna aldatzeko proposamena, ondokoak zehazkiago: gai transformatuen araubidea, zitrikoak eta funts operatiboetarako finantza-laguntzei buruzko araudia.

Aldaketa horiek 2001-2002ko merkaturatze kanpainian aplikatuko dira aurreneko aldiz, salbu eta ekoizleen elkarreentzako laguntzak, 2001eko urtarrilaren 1ean aplikatuko baitira.

Esan gabe doa gure komunitatean garrantzi ekonomiko eta sozial itzela dutela aldaketa horrek ukituko dituen fruta- zein barazki-laboreek. Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

1.- Zer proposamen egingen dio Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioari, iragarritako aldaketak direla-eta gure komunitateko nekazarien interesak defenditzearren?

2.- Zeintzuk dira Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuaren lehentasunak iragarritako aldaketak direla-eta?

3.- Kontuan izanik Batzordeak txosten bat aurkeztu behar duela 2200/1996 Erregelamenduaren funtzionamenduari buruz, zer egin du edo zer egingen du Departamentuak gai freskoei buruzko 2200/1996 Erregelamenduan sartzeko zainzurien laborantza? (Une honetan, fruitu oskoldunak sartzeari ari da planteatzen).

Iruñean, 2000ko uztailaren 28an

Foru parlamentaria: Andrés Basterra Layana

Cortesko ureztatzeko ubideetan izandako zenbait isurketa librerri buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JUAN JOSE LIZARBE BAZTAN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko abuztuaren 28an egindako bilkuran, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak Cortesko ureztatzeko ubideetan izandako zenbait isurketa librerri buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko abuztuaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Biltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluari eta ondorengoei jarraituz, idatziz erantzuteko hurrengo galderak egin dizkio Nafarroako Gobernuako Ingurugiro Departamentuari:

Azken hilabete hauetan Corteseko biztanleek ureztatzeko ubideetan zenbait isurketa libre antzeman dituzte. Batzuetan, Malléneko saneamendutik datoz; bestetan, berriz, herriko kontserba-enpresa batetik. Isurketa horiek bertoko bizila-

gunak gogaitzen dituzte, batez ere, botatzen duten kiratsarengatik. Horretaz gain, elikagaiak kutsatzeko arriskua egon daiteke, ur horiek barazkiak ureztatzeko erabiltzen baitira.

Hori dela eta, ondoko galdera hauek egiten dizkiot Nafarroako Gobernuari:

– Ba al du Ingurugiro Departamentuak isurketa horien berri?

– Horien berri baldin badu, zer egin du isurketak ikuskatu, kontrolatu eta haien jarraipena egiteko?

ko? Noiz? Zein izan dira jarduera horien emaitzak? Zer agindu eman dira? Zer neurri hartu dira?

– Isurketa horien berririk ez badu, noiz pentsatzen du ikuskaketa eta kontrola egitea? Zer neurri hartzeko asmoa du?

Iruñean, 2000ko abuztuaren 14an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Cortesko gazteluari buruz Nafarroako Gobernuak dauzkan asmoei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JUAN JOSE LIZARBE BAZTAN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko abuztuaren 28an egindako bilkuran, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak Cortesko gazteluari buruz Nafarroako Gobernuak dauzkan asmoei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko abuztuaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Biltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluari eta ondokoei jarraituz, idatziz erantzuteko ondoko galderak egin dizkio Nafarroako Gobernuak Industria eta Kultura Departamentuei:

Nafarroako Gobernuak ondo baino hobeto daki badela Cortesen Gaztelu bat eta, gainera, haren kontserbazio egoera tamalgarria dela eta pixkanaka okerrera dihoala. Horrela jarraitzen badu eta berehala ezer egiten ez bada, ondare historiko-artistiko hori erabat hondatuko da.

Behin baino gehiagotan Gobernuak goi-agintariek, bai gobernu zentralekoek bai autonomia erki-degoetakoek, gaztelu horiek sendotzeko asmoa adierazi dute, zaharberritu eta turismoko paradore nazional gisa egokitzeko. Nafarroako bigarren litzateke eta Erriberako lehena.

Beraz, idatziz erantzuteko galdera hauek egiten dizkiot Gobernuari:

– Ba al du oraindik ere Gobernuak Cortesko Gaztelua zaharberritu eta bertan Nafarroako bigarren Paradore Nazionala -Espainiako Paradoreen Sarearen barruan- ezartzeko asmorik?

– Baiezkoan, noiz uste du hasi ahalko direla sendotzeko lanak? Eta zaharberritze eta birgaitzeko lanak? Azkenik, noiz hasiko da paradore gisa funtzionatzen?

– Ezezkoan, zer egiteko asmoa du Gobernuak higiezinaren hondamena gelditu eta berori sendotzeko? Zer kopurutako funtsak bideratuko ditu horretarako? Aurrekontuko zein kontusailen kargura? Noiz uste du hasi ahalko direla obra horiek?

Iruñean, 2000ko abuztuaren 14an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Cortesko lursailak industria erabilerarako birkalifikatzeari eta bertan industriarako dagoen lurzoruari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JUAN JOSE LIZARBE BAZTAN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko abuztuaren 28an egindako bilkuran, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak Cortesko lursailak industria erabilerarako birkalifikatzeari eta bertan industriarako dagoen lurzoruari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko abuztuaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baz-

tán jaunak, Biltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluari eta ondorengoei jarraituz, ondoko galdera egin du Nafarroako Gobernuako Industria Departamentuak idatziz erantzun diezaion:

Zenbait hilabetetik hona Cortesko Udala lanean ari da zenbait lursail lurzoru industrial gisa urbanistikoki egokitzen. Izapidaketa, baina, aurreikusten zen baino luzeagoa suertatzen ari da.

Hortaz, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari:

Noizko espero da lursailak industria erabilerarako birkalifikatzeko espedienteak bukatzea eta Cortesen lurzoru industrialak benetan izatea?

Iruñean, 2000ko abuztuaren 14an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Nafarroako Oihan Planari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSE ANDRES BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko abuztuaren 28an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Nafarroako Oihan Planari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko abuztuaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroak Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari idatziz erantzun diezaion:

Joan zen legegintzaldian zehar Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Oihan Plana onetsi zuen 1998-2007 urteetan gauzatzeko. Oihan Plan

hori beharrezkoa da hainbat arrazoiengatik, baina, batez ere, Nafarroako lurzoruaren % 50 basoak direlako eta, beraz, benetako ondare gisa arautu eta zaintzea beharrezkoa delako. Ez dugu ahaztu behar ere, Nafarroako basoak biodibertsitatearen erreserba direla eta, beraz, horiek zaindu eta garatu beharra dagoela.

Egoera horren aurrean Nafarroako Aurrekontu Orokorretan kontusailak sortu dira urte batzuetan, Oihan Planean onetsi ziren neurri guztiak gauza daitezten.

Hori dela-eta, Oihan Planaren jarraipen eta kontrolean, neurri hauek –gehienak 1999an gauzatzea aurreikusitakoak– zer gradutan gauzatu diren jakin nahi da:

1.- Sortu du Nafarroako Gobernuak, aurreikusi bezala, "Oihan eskolak-Enpresak eta elkarteak" izeneko fundazioa?

2.- Arautu ditu oihanen jarraipenerako mezenasgoa eta fundazioak?

3.- Sortu du Nafarroako Oihan Fondoa?

4.- Prestatu eta argitaratu du basoei buruzko lege-multzorik, indarrean jartzeko?

5.- Onetsi du basoen kudeaketarako pizgarrien eta zergapetzeen sistemarik?

6.- Onetsi ditu zerga-arinketak Oihan Lurren Fondorako lurren dohaintza egiteagatik?

7.- Onetsi ditu beharrezko diru-ekarpenak oihan museo bat sortu eta mantentzeko?

8.- Prestatu du Nafarroako Gobernuak, aurreikusitako bezala, basoko bideen plan orokorrik Nafarroarako?

9.- Prestatu ditu Nafarroako Gobernuak eskualde planak basoko suteei aurre hartzeko?

10.- Oihan Planean jasotako salmentak –batera egitekoak eta bestelakoak– ahalbidetzeko beharrezkoa da Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legean aldaketak egitea. Noizko aurreikusitako aldaketa horiek aurkeztea?

11.- Hasi da Nafarroako Gobernua Iruñerrian oihan hondakinekin zentro energetikoa sortzeko beharrezkoa den bideragarritasun azterlana egiten?

Iruñean, 2000ko abuztuaren 18an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Toki entitateen egintzak eta erabakiak kontrolatzeko mekanismoei buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSE ANDRES BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko abuztuaren 28an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak toki entitateen egintzak eta erabakiak kontrolatzeko mekanismoei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko abuztuaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaien:

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legeak, bere 345. artikuluan ezartzen duenez, “Nafarroako toki entitateak beharturik daude Foru Komunitateko Administrazioari, ezartzen diren epe eta eran, beren ekintza eta erabakien kopia edo laburpena igortzera.”

Halaber, 346. artikulua ezartzen duenez, “Nafarroako toki entitateen ekintza eta erabakiak inpregnatzeko ahalmena erabiltzea, 335. artikulua aipatua, Foru Komunitateko Administrazioaren barrinean Administrazio Lokalari buruzko eskumenak dituenari dagokio.”

Nafarroako toki entitateek dituzten betebeharrak direla-eta, jakin nahi da:

1.- Nafarroako toki entitateen zenbat egintza eta erabaki aurkatu ditu Toki Administrazioaren arloan eskumenak dituen Foru Komunitateko Administrazioaren organoak, 1998, 1999 eta 2000. urteetan?

2.- Zenbat toki entitate eskatu zaio bere egintza eta erabakiei buruzko informazio gehiago eman dezan, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 345.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz?

3.- Uste al du Nafarroako Gobernuak Toki Administrazioari buruzko Foru Legeak legezotasuna kontrolatzeko ezartzen dituen mekanismoak gehiegizkoak eta premiagabekoak direla?

Iruñean, 2000ko abuztuaren 18an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Mendillorriko kiroldegiari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSE ANDRES BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko abuztuaren 28an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Mendillorriko kiroldegiari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko abuztuaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Parlamentuko Erregulamentuaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoaren babesean, idatziz erantzuteko hurrengo galdera egin dio Nafarroako Gobernuari.

Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak onetsitako baldintzen pleguak trinketaren eraikuntza lehenesten du kiroldegiarenarekiko, Iruñeko Mendillorri auzoan. Erabaki horrek ez du Toki Administrazioeko kontseilari Rafael Gurra Indurain jaunak eta Eguesibarko alkateak sinatutako akordioa errespetatzen. Izan ere, "Mendillorri bereiztea eta Iruñean barneratzea arautzen duen hitzarmenaren" 2. eranskinean "Mendillorriko kiroldegia egiteko obrak 1997an hasteko" konpromisoa hartu zuten.

Iruñeko Udaleko zinegotziek Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuaren ekimen hori kritikatu

dute. Nafarroako Demokratien Elkargunean bada-kigu Munduko Pilota Txapelketa Nafarroan ospatuko dela 2002. urtean eta trinketaren obrak premia duela, baina kontuan izan behar dugu horregatik Mendillorriko auzokoek ez dutela zertan gehiago itxaron kiroldegia izateko. Borondate politikoa baldin badago, Nafarroako Aurrekontu Orokorrak gai dira aldi berean bi obrei aurre egiteko. Beraz, jakin nahi dugu:

1.- Nafarroako Gobernuak duela gutxi onartu eta argitaratu duen baldintzen pleguan Mendillorriko trinketaren eraikuntza lehenetsi du kiroldegiarenarekiko eta, beraz, "Mendillorri bereiztea eta Iruñean barneratzea arautzen duen hitzarmena" ez du bete. Zergatik?

2.- Elkarrizketatu al da Iruñeko Udalarekin kiroldegia eraikitzeke atzerapen berri honen zergatiak azaltzeko?

3.- 2001. urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorrak Nafarroako Gobernuak egin eta, ondoren, Nafarroako Parlamentura igortzen dituela kontuan hartuz, aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak kontusail bat esleitzea 2001. urtean Mendillorriko kiroldegia egiteko?

4.- Erantzuna ezezkoa bada, noizko uste du Nafarroako Gobernuak egin ahalko direla kiroldegi horretako obrak?

Iruñean, 2000ko abuztuaren 18an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Tabakoaren Foru Planari eta Nafarroan dagoen tabakoaren kontsumoari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI M^a ISABEL ARBONIES BERMEJO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko abuztuaren 28an egindako bilkuran, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak tabakoaren Foru Planari eta Nafarroan dagoen tabakoaren kontsumoari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko abuztuaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak, Biltzarreko Erreglamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaiten:

Joan zen maiatzean Gobernuak Nafarroako Tabakoaren Foru Plana aurkeztu zien komunikabideei. Kontseilariak orduan esan zuenez, Nafarroak osasunaren arloko arazoak direla eta behar du Plan hau. Arazoak begi bistakoak dira, kontuan hartuta, zientzialarien datuen arabera, tabakoaren kontsumoak eragiten duela minbizigatik hildakoen erdia, tabakoaren kontsumoak ekartzen dituen bestelako patologiek eragindakoak alde batera utzita.

Giza bizitzeko galerak osasun eta gizarte kostua duela argi dago. Halere, minbizi eragile indartsu honek, hain ezaguna eta zabaldua gizartean, etekin handiak uzten ditu Ogasun Publikoen eskuetan, tabakoaren prezioaren % 74 zuzenean joaten baita Ogasun Publikora zergen bitartez. 1999an 850 mila milioi pezeta baino gehiagoko etekinak izan bide zituen Estatuak. Tabakoaren salmenta estatuaren monopolioa izan da duela

gutxi arte; laborantza merkea da eta haren salmentak eragiten dituen etekinak hain handiak dira ezen Espainiak tabakoaren publizitatea debekatzeko duen zuzentaraua 2006. urtera arte atzeratzea erabaki baitu.

Komunikabideetako kanpainak tabako menpekotasunarekiko zenbait jarrera pertsonal aldaraz ditzakeela eta Tabakoaren Foru Planaren barrenean beste neurri bat dela ukatu gabe ere, gehiago egin daiteke, errealistagoa izan behar da eta osasun publikoaren arloko afera larri hau irudi kanpaina huts batetara ez mugatu. Ez da neurri sendorik ikusten, tabakoaren etekin ekonomikoak jasotzen dituen Administrazio Publikoaren beraren jokabideak tinko eta eredugarria izan beharko luke, menpekotasuna, kutsadura, gaixotasuna eta heriotza eragiten dituen produktu honi aurre egiteko.

Guztiatik, jakin nahi dugu:

1)- Foru Ogasunak azken hiru urteotan tabakoaren salmentari esker lortu duen etekin ekonomikoa, urtez urtekoa.

2)- Erretzaile gaixoen tratamenduak osasun arloan ekarri duen kostu ekonomikoa azken hiru urteotan.

3)- Tabako menpekotasunak eragindako gaixotasunen ondorioz azken hiru urteotan hildakoen kopurua.

4)- Tabakoaren Foru Planaren zuzkidura ekonomikoa.

5)- Gobernuak zerga onurei dagokienez hartuko dituen neurriak. Etekin ekonomikoaren zein portzente erabiltzen du Foru Ogasunak tabakoak sortutako kalteei aurre egiteko?

Iruñean, 2000ko abuztuaren 23an

Foru parlamentaria: M^a Isabel Arboniés Bermejo

I saila:
PARLAMENTUKO JARDUERA

2000ko ekainean egindako bilerak

MAHAIA

2 eta 15ean.

MAHAIA ETA ELEDUNEN BATZARRA

5, 12, 19, 22 eta 28an.

OSOKO BILKURA

13an:

– 2001-2003 toki azpiegituren hiru urtetarako planaren Foru Lege proiektuari egindako osoko zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea. Zuzenketak Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak eta José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztu dituzte.

– Krisian dauden enpresak salbatu eta berregituratzeko laguntzei buruzko Foru Lege proiektua dela-eta Industri, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordeak onetsitako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 54 eta 75. artikulua aldatzeko proposamena dela-eta Erregelamendu Batzordeak onetsitako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko I. kapituluko XIII. titulua aldatzeko proposamena dela-eta Erregelamendu Batzordeak onetsitako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Famili-bitartekotzari buruzko Foru Lege proposamena, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua, aintzat hartzea, hala erabakiz gero.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bitartez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gaitasun artistikoak arau ditzan.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bitartez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikasketa artistikoei buruzko arauak eman ditzan.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bitartez, Nafarroako Gobernua premiatzen da haur hezkuntzako lehen zikloaren erregelamenduzko garapena aurkez dezan.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bitartez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hizkuntza politika berri- kus dezan.

– Galdera, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztua, datorren ikasturterako aurre- matrikulazio epeak luzatzearen Hezkuntza eta Kultura Batzordeak onetsitako erabakia ez bete- zteari buruzkoa.

22 eta 23an:

– Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko Foru Lege proposamena dela-eta Foru Araubide Batzordeak onetsitako irizpena eztabai- datu eta bozkatzea.

– Nekazaritzako finantzaketari buruzko lege mailako xedapenen testu bateratua aldatzen duen Foru Lege proiektua dela-eta Nekazaritza, Abel- tzaintza eta Mendi Batzordeak onetsitako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Bikote egonkorren berdintasun juridikoari buruzko Foru Lege proposamena dela-eta Lehen- dakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak onetsitako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Bikote egonkorren berdintasun juridikoari buruzko Lege proposamena dela-eta Lehendaka- ritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak one- tsitako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Zigiluetan eta beste hainbat posta-gaitan Estatuko hizkuntzak erabiltzeari buruzko Lege

proposamena dela-eta Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak onetsitako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Farmazien zerbitzua arautzen duen apirilaren 25eko 16/1997 Legea aldatzeko Lege proposamena, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua, aintzat hartzea, hala erabakiz gero.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Haren bitartez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten ditu legez kanpoko jokoak zein bat-bateko loteriaren sorrera.

– Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Haren bitartez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Landa-garapenerako Lurraldeko Kontseilu Aholku-emailea sor dezan.

– EH, IUN-NEB, CDN eta EA/EAJ-PNV Parlamentuko taldeek aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Haren bitartez, Nafarroako Gobernua premiatzen da elikagaien araei buruzko Foru Lege proiektu bat igor dezan.

– Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Haren bitartez, Bardeako tiro poligonoa kentzeko eskatzen da.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Haren bitartez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Itoizko urtegiaren ingurunea gozatzeari, ingurumena zaintzeari eta haren erabilerei buruzko plan bat egin dezan.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Haren bitartez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure komunitatean oporrrak igarotzen dituzten begiraleen eta haurren osasun-premiei erantzuteko agirien banaketarako arauak eman ditzan.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Haren bitartez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zerga iruzurrari aurre egiteko plan bat egin dezan.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Haren bitartez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lankidetzaren hitzarmen bat sina dezan Ekonomi eta Ogasun Departamentuak Nafarroako Erdialdea Garatzeko Partzuergoarekin.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Haren bitartez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lankidetzaren hitzarmen bat sina dezan Ekonomi eta Ogasun Departamentuak TEDER (Tierra Estella Desarrollo Rural) elkartearekin.

– Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Haren bitartez, polizia nazionala Nafarroako Unibertsitate Publikoan bortxaz sartu izana salatzen da.

– PFEZari buruzko egungo Foru Legearen aplikazioari buruzko jabeldura, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO BATZORDEA

1ean:

– Lan bilera. Bertan Lizarrako Arrantzale eta Ehiztarien Elkarteak eta FOOD, SA enpresak Artatza-Zudairiko arrain-haztegiaren egoeraren berri emango dute; eta UAGN sindikatuak Komunitatearen intereseko tokiei buruz mintzatuko da.

21ean:

– Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak hala eskaturik, Allozko urtegitik gertu arrainak zergatik hil diren argitu dezan.

– Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak hala eskaturik, iragan abenduan etxebizitzak deskalifikatzeko eskariek gora egin izana justifikatzen duten arrazoiei buruz informa dezan.

27an:

– Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak hala eskaturik, ISN enpresak sortutako hondakinen bigarren analisia dela-eta Departamentuak egiten dituen jarduketan berri eman dezan.

– Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak hala eskaturik, argibideak eman ditzan Barañaingo Hiri Antolamendurako Plan Orokorra aldatzeko aginpidea kentzeko proposamenari buruz.

– Lurraldearen antolamendurako araei buruzko galdera, José Andrés Burguete Torres jaunak aurkeztua.

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEA

2an:

– Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak hala eskatuta, 0-3 urte bitarteko haurrak eskolatzeko eskaintzen diren plazei buruz informa dezan.

2an:

– Lan bilera. Bertan, egiten dituzten eskaeren berri emanen dute Castejónko 2 de mayo ikastetxe publikoko IGE-Ikasleen Gurasoen Elkarteko ordezkariak.

9an:

